

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZURBAOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Onespena ematea saneamenduaren, horniketaren, argiteriaren, argindarraren eta telefonoen sareak zaharbertzeko proiektuari

Zurbaoko kontzejuak, 2019ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabaki hauek hartu zituen, beste batzuen artean:

a. Hasierako onespena ematea "Zurbaoko (Araba) saneamenduaren, horniketaren, argiteriaren, argindarraren eta telefonoen sareak zaharbertzeko proiektua" izenekoaren aldaketari, zeina Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute arkitektoak idatzi baitu, eta honetan baitatza: 1. eranski-nari dagokionez (Eraginak), osatzea 2. puntuko (Eragiteko moduak) c) atalaren idazketa, ahalbidetzeko euri uren edo hondakin uren saneamendu azpiegiturak eraikinen azpitik igaro daitezela egoera jakin batzuetan.

b. Erabaki hau argitaratzea ALHAOn, Araban zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean eta kontzejuko iragarki taulan. Erabakia jendaurrean jarriko da 20 egun baliodunez, ALHAOn argitaratu osteko egunetik aurrera, interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten, eta espedientea edozein pertsona fisiko edo juridikok aztertu ahal izango du administrazio batzarreko egoitzan.

c. Espedientea jendaurrean jartzeko epean alegaziorik aurkezten ez bada, urbanizazio proiektuaren aldaketa behin betiko onetsitza joko da.

Esandako erabakien aurka ez dago errekurtoa jartzetik, izapide egintzak baitira. Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Zurbaio, 2019ko uztailaren 12a

Lehendakaria
FERNANDO MURILLO